



# #STOPASKI

[WWW.HERRIANBIZI.COM/STOPASKI](http://WWW.HERRIANBIZI.COM/STOPASKI)

## BIGARREN ETXEBIZITZA BAT ESKURATU NAHI DUTENEI ZUZENDUA

Ipar Euskal Herriko etxebizitzaren %20a baino gehiago bigarren etxebizitzak dira (\*). Beren prezioarengatik, bertakoentzat geroz eta zailago bilakatzen ari da bizitoki bat kausitzea. Etxebizitzaren krisia, ondorio jasanezinak dituen lerro gorri bat gaintzen ari da: beren autoan bizitzera kondenatuak diren langileak, egurrezko ttattola batean bizi diren pertsona ezgaituak, etxebizitza eskasiaren aintzinean sekulako prezioa duten alokairuen ordaintzeko lanean ahitzen direnak, betidanik Ipar Euskal Herrian bizi izandako familiak alde egin behar izaten dutenak.

Gaur egun, lurralde honetako herritarrentzat bizitoki bat eskuratzeko eskubidea zalantzan ezarria da guti batzuk bizitoki bat baino gehiago dituztelako.

### ASKI DA!

Zein ondorio izan lezake fenomeno horrek Ipar Euskal Herrian, bere biztanlegoarentzat, klima edota biodibertsitatearentzat? Lehen etxebizitzak bigarren etxebizitza bihurtzeko erosiak diren bitartean, bizitoki berriak eraiki behar izaten dira etxebizitza eskasiari aurre egiteko.

(\* ) Plan Local de l'Habitat (PLH)-aren diagnostikoaren arabera INSEE-ren datuetan oinarritua

Lurrak geroz eta gehiago artifizializatuak dira, bertakoak beren lan edo zerbitzu eremuetatik urruntzera bideratuak dira, joan-etorri hauek eragiten duten akidura indartuz eta larrialdi klimatikoa areagotuz.

Noraino igan daiteke ehuneko hori? Ipar Euskal Herrian, dagoeneko bigarren etxebizitza gehiago bada, urte osorako alokatzen diren bizitoki pribatuak baino! Noiz erranen ote dugu "aski da"? Eta nola egin genezake halako fenomeno bat geldiarazteko legeak falta direnean, herriek edota elkargoek hainbat neurri aplikatu ezin dituzten bitartean?

Suizako konstituzioak aurreikusten du "herri batean, bizitoki bihurtzen ahal den lur eremu edota etxebizitzaren artean %20ak gehienik izan daitezkeela bigarren etxebizitzak". Euskal Kostaldeko hainbat herritan, zeinetan bigarren etxebizitzaren proportzioa %50tik gorakoa den, bizitoki bat baino gehiago ukateko guti batzuk duten borondateak, kalte egiten dio bizitoki bat eskuratu nahi duen gehiengoari.

Ezinezko zaigu ehuneko hori goraka egiten ikustea eta beharrezko ikusten dugu zenbaki hori apalaraztea.

## DEIALDIA LUZATZEN DUGU

Ezinbestean, deialdi hau luzatzen diogu Ipar Euskal Herrian bigarren etxebizitza bat eskuratu nahi lukeen orori: dagoeneko bigarren etxebizitza gisa erabilia den bizitoki bat izan dadin galdegiten diogu. Ipar Euskal Herriko etxebizitzaren krisia ikusirik, onartezina egiten zaigu bigarren etxebizitza gisa bihurtzea honako bizitoki mota hauek:

- gaur egun lehen etxebizitza gisa erabiliak diren bizitokiak,
- bertako biztanleen beharrei erantzuteko eraiki diren bizitoki berriak,
- konpentsazio neurriaren aplikazioa dela eta berriz merkaturatu diren bizitokiak, turismo gisa gehiago erabiltzen ahal ez direlako.

2024ko urtarrilaren 1etik goiti, kategoria horietako bizitegi bat bigarren etxebizitza bilakatzea, biztanleen bertan bizitzeko eskubidearen urraketa larri gisa kontsideratuko dugu.

Deialdia hau kontutan hartzeagatik gure esker ona adierazten dizuegu, baita lurralde honen alde egiteagatik, bere edertasuna, nortasuna eta bizitasunak biziraun dezan.

**DENEK ELGARREKIN,  
HERRIAN BIZITZEKO ESKUBIDEA  
BERMATU DEZAGUN!**